



Komunitatearen indarra

Laguntza eta babesak eskaini nahi duen jendea ez da gutxi garaiotan, horren lekuko dira sortu diren ekimen txiki eta handiak, sarri administrazioak utzitako hutsuneak bete asmoz.

ZAINTZAK ERDIGUNEAN

Zaintza-krisiaren aurrean esku hartzeko, mahai teknikoak sortu du mugimendu feministak. Agintarien erantzunik gabe, baina hogeit hamar eragile sozial, politiko eta sindikalen babesarekin ekin zion mahaiak ibilbideari martxoaren 23an.

ZAINTZA SAREAK

Euskal herri osoan, atariz atari, txanpinoiak lez eta autoantolakuntza oinarri, zaintza sareak osatu dituzte herritarrek, laguntza behar duten herrikideen beharrak asetzeko: erosketak egin, osasun zentroetan bajak jaso, umeentzako jostailuak eman...

ETXEBIZITZA ESKUBIDE

Espainiako Estatuko hainbat kolektibo eta maizterren sindikatuk deituta, alokairu greba abiatu dute apirilean, alokairua ordainduz maizterrek gehiegi zorpetzea saihesteko.

ERRESISTENTZIA KUTXAK

Lana galdu duten etxeetako langileei laguntzeko, krisiak bereziki kolpatu dituen migratzaileei ekarpena egiteko... han-hemenka sortu dituzte erresistentzia kutxak, egoera lazgarrienean daudenek oinarritzko beharrak ase ahal izan ditzaten.

ZAHAR ETXEETAN BIZITZEN

Lizarrako eta Zestoako zahar etxeetan, konfinamenduak iraun bitartean



MATTANE GARTZANDIA

etxera joan-etorria egin ordez egoitzan bertan geratzea erabaki dute langileek, zaharrak ez kutsatzeko ahaleginean.

ARRAKALA DIGITALA GAINDITZEKO

Etxean internetik ez daukaten haurrei konexioa eskaintzen hasi da Izarkom operadore kooperatiboa, ikastetxeekin elkarlanean, eskolako lanekin segi dezaten.

TOKIKO ELIKADURA SAREAK

Ekoizle txikiak tokiko elikadura sareak erabiltzen ari dira euren produktuei aterabidea emateko, dela internetez, dela etxeetara banatuz edo azoketan.

INDARKERIA MATXISTAREN AURKA

Hainbat emakere beren erasotzaileekin itxita eta isolatuta egoitera igaro dira. Konfinamendua hasi zenetik jasotako erasoei tinko erantzuten jarraitu du mugimendu feministak, leiho eta balkoietatik kazeroladak deituz.

EZ IZAN SALATARI

Balkoietakoko salatarien aurkako hainbat irudi eta mezu zabaltzen ari da sare sozialetan. Balkoietatik salatari lanak ez egiteko eskatzen diete herritarrei, eta horren ordez auzokideak zaintzeko.

OSPITALEETARAKO MATERIALA EGITEN

Ospitaleetan dagoen material eska-siari aurre egin asmoz, 3D inprimagailuak dituzten ikastetxe, fabrika eta herritarrak lanean jarri dira, arnas-aparailuak eta beste egiten. Maskarak josteari ekin dioten herritarrak ere makina bat dira.

TXALOAK

Herritarrek egunero eskertzen diete balkoietatik osasun arloko langileei pandemiaren aurkako eta herritarren aldeko borrokan egiten ari diren ahalegin handia. Bestelako eskertzak egiteko txalo deialdiak eta aldarrikapenak egiteko eltze-jotzeak ere ez dira falta egunotan. ●